



Zumardi Handiak hartuko du San Joan kontzertu «berezia», larunbatean

TOLOSA ▶ Juantxo Zeberioaren zuzendaritzapean, 22:30etik aurrera izango da emanaldia

PARTE-HARTZEA ▶ Kultur talde ezagunak ariko dira, Tolosaren 750. urteurrenaren baitan ▶ 2

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

UEMAren II. SMS Lehiaketa, martxan

'Esaiozu ezetz' gaia jorratu beharko dute parte-hartzaileek ▶ 6

LEITZA ▶



J. ASTIBIA



Lou Reed, rock-aren izarra, Tolosan Ordorikarekin

TOLOSA ▶ Bartzelonan eta Madrilen kontzertuak eskaini ostean, eta Londonen emango duenaren aurretik, Tolosan izan zen, atzo, Lou Reed, New York-eko musikari ezaguna. «Euskal Herriko entzulegoa oso musikala da, hala ikusi dut hemen eskaini ditudan kontzertuetan», azaldu zion Lou Reedek TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZARI. I. G. ▶ 3

Mailaz igotzeko aukera du Aurrerak

Bi neurketa geratzen zaizkio taldeari; igandean, etxean ▶ 7

VILLABONA ▶

Behar-Zanak 60 urte bete ditu, Jose Ignacio Santamaria omenduz

Euskal Herriko Errebote Txapelketako finalerdia jokatu dute elkartekoek ▶ 4

Zure etorkizunak kontatzen du

Zure lana, Zure lagunak, Zure familia, Zure bikotea, Zure kultura, Zure enplekua

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

OSTALARITZA ETA TURISMOA

- Zerbitzu arloa.
- Sukaldaritza.
- Decogintza eta ekigintza.
- Ostalaritza arloa.
- Ostalaritza agentziak.
- Turismo-informazio eta merkataritza.

INFORMATIKA

- Informatika-sistemaren administrazioa.
- Informatika-aplikazioen garapena.
- Sistema informetikoaren kudeaketa.

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Nazioarteko merkataritza.
- Merkataritza-kudeaketa eta marketina.
- Merkataritza.

ADMINISTRATZIOA

- Administrazio eta finantza (A eta DE).
- Idazkeritza.
- Administrazio-kudeaketa.

LANBIDE HASTAPENERA IKASTURTEA

Atsak Zabalik:
04/06/06.
Orduak: 12:00tan eta 18:00tan.
Berritzaileak: 50 - Donostia
Tfn. 943 316 900 - www.cebanc.com

Cebanc-Cilea
CENTRO DE ESTUDIOS BILINGÜES DE ADMINISTRACIÓN Y FINANZAS

KULTURA ▶

San Joan kontzertua, emanaldi zirraragarria 750. urteurrenean

Zumardi Handian egingo dute larunbatean, 22:30etik aurrera, Juantxo Zeberioen zuzendaritzapean



Ezker-eskuin: David Azurza, Migel Zeberio, Juantxo Zeberio, Jokin Bildarratz, Gurutze Zubeldia eta Maite Chocano, atzokoan. N. LATABURU

NOELIA LATABURU

Tolosako Zumardi Handia bezalako paraje ederraren mar-koan burutuko dute, heldu den larunbatean, 22:30etik aurrera, San Joan kontzertua. Paraje honetan aurkeztu zuten, hain zuzen, atzokoan, aipatu kontzertuaren nondik norakoak Tolosa 750. urteurrena Fundazioaren zuzendari Gurutze Zubeldiak, Tolosako alkate Jokin Bildarratzek, San Joan kontzertuko zuzendari Juantxo Zeberioak, Hodeitruk-en zuzendari David Azurzak eta Ereskitxo-ren zuzendari Migel Zeberioak.

750. urteurrenaren harira, emanaldi zirraragarria izango dela aurrekusi zuen Bildarratzek. «*In crescendo* doa Fundazioaren lana eta kontzertu potente hau jendearentzat izango da». Ekitaldiaren zuzendariak ere hartu zuen hitza, eta, besteak beste, kontzertua ez dagoela bertako ekitaldi bezala planteatuta azaldu zuen. «Tolosako mugaz gain pasa nahi du kontzertuak, leku magiko batean magia transmitituz», azaldu zuen Zeberioak. Hala, «*txaropenari kantu baten antzera*» definitu zuen tolosarrak San Joan kontzertua.

Emanaldiaren xehetasunak

Talde ezberdinek hartuko dute parte ikuskizunean, musikak, ahotsek, dantzariak eta instrumentuek elkarrekin bat egingez. Talde handien baitan, Tolosako Musika Banda, Hodeitertz abesbatza, Tolosako Orfeoia, hiru haur abesbatz — Ereskitxo, Laskorain eta Hodeitruk —, Udaberri dantza taldea, Katixa Perearen udal dantza tailerraren eta Izaskun Arriola dantza eskolaren eskutik, dantza jazzeko dantzariak, Mulambo perkusio taldea, Tolosako erraldoien konpartsa eta Tolosako Udal txistularien banda izango dira. Ahots lanetan, berri, Maddi Oihenart eta Arantxa Irazusta ariko dira. Eta, instrumentuen gidariak Jon Garmendia, txirularekin, Mikel Andueza, saxoarekin, Juantxo Zeberio, pianoarekin, Txema Garcés, baxuarekin eta Hasier Oleaga, bateriarekin, dira.

Inbertsio handia egin dute emanaldia «borobila» izan dadin; horren adibide Zumardi Handian jarriko duten pantaila erraldoia, argiztapena eta eszenografia dira, besteen artean. Guztira ordu eta laurden inguru jardungo dute lanean, eta aurkeztuko duten 17 pieza musikalak «kontzerturako egokitutakoak izango dira».

KIROLA ▶



Eskolarteko kopa Samaniegora

Eredakzioa ▶ Joan zen larunbatean Astigarragako kiroldegian, Gipuzkoako Eskolarteko areto futboleko finala jokatu zuten Samaniegoko neskek, Azkoitiko Xabier de Munibe ikastetxearen aurka. Kopa etxera ekarri zuten tolosarrek, 2-1 eko emaitzarekin. Samaniego neskek — argazkian — bigarren aldiz jarraian lortzen dute sari hau. Denboraldi «bikaina» burutu dute, joku ona erakutsiz eta, denboraldi osoan, partidurik galdu gabe. HITZA

MERKATARITZA ▶



Merkataritza mahaia bere lehen fasea amaitutzat jo du

Eredakzioa ▶ Lehen fasea amaitu du apirila geroztik Tolosaldean merkataritza bultzatu helburuz osatu duten mahaia. Tolosaldea Garatzen, Alde Zaharra-Dendak eta Igarondo elkarteetako ordezkariak osatu dute aipatu mahaia, non komertzioaren arazoak aztertu dituzten, batik bat: aparkalekuak, Arau Subsidiarioen eraginak merkataritzan, beste zonaldeekin duten kompetentzia, bezeroen beharren aldaketak, sektorearen indibidualismoa... Helburua, beti ere, irtenbideak topatzea delarik. HITZA

KULTUR ESKAINTZA 2006

Ekainaren kuxak babestu eta finantzaturiko Kultur Jarduerak

Eguna	Herria	Ekitaldia	Lekua	Ordua
Ekain 7a-14a	Berra	Erakusketak: Kalerazio Mundua; Anjel Cuervo	Benito Izagirre Kultur Etxea	10:00-13:00 17:30-21:00
Ekain 7a	Albiztur	Ipsuin Kontaketa; Joseba Ramirez	Udal Liburutegia	16:30
Ekain 7a	Berra	Proiektzioa-Mongolia Zaldia; Anjel Cuervo	Benito Izagirre Kultur Etxea	19:30
Ekain 8a	Bilabona	Kontzertua: Iñigo Larrañaga Akordeoi Orkestra	Gurea Aretoa	20:00
Ekain 8a	Berra	Proiektzioa-Zelanda Berria; José Ramón Aguirre	Benito Izagirre Kultur Etxea	19:30
Ekain 9a	Isaberrain	Antzerkia - Errelebo	Txaranoako Kultur Osasun Zentroa	20:00
Ekain 16	Andoain	Kontzertua: Josu Okillena eta Razvan Suma	Bastero kulturaren Aretoa	19:30
Ekain 17	Altzo	Ipsuin Kontaketa; Joseba Ramirez	Erronkoko Gela	17:00
Ekain 22	Tolosa	Antzerkia- 1, 2, 3 Inasito	Erron Haur Liburutegia Iratxearen	17:00
Ekain 23	Belauriz	Kontzertua: Herria kantuta; Joseba Ramirez	Herriko Taberna	21:00
Ekain 24	Zizkuel	Proiektzioa: Sorgin bat etxean	San Millan Elizako Frontoi	22:30

MUSIKA ▶
I. GARCIA - I. TERRADILLOS

Londonera joan aurretik, Lou Reed musikari famatua Tolosan izan da. Baina zer egiten zuen rock-aren izar mitikoetako batek hemen? Erantzuna *Azkarate konexioa*-n bilatu behar da. Izan ere, Katarain estudioetako Jonan Ordorika Lou Reed-en baxua den Fernando Saunders-en oso laguna da, duela urte batzuk Ruper Ordorikaren *Hurrengo goizean* diskoan parte hartu zuenetik.

Bartzelonan eta Madrilen kontzertuak eskaini ondoren egun batzuk zituzten libre Reede, bere taldekideek eta bira guztietan berarekin eramaten duen tai chi maisuak. Ordorikak Azkaratera gonbidatu zituen. Igandeko gaua han pasatu zuten eta atzo Tolosako Fronton jatetxean bazkaldu zuten, Ruper Ordorikarekin batera. Komunikabideak ez omen ditu asko maite eta kostata onartu zuen HITZAKO kazetariak argazkia ateratzea. «Ateratzekotan, Ruperrekin batera», agindu zuen azkenean. Gero, argazkiak ikuskatu nahi izan zituen, baina, ezin zituela ondo ikusi eta tai chi-ko maisuari esan zion begiratzeko. Hitz batzuk ateratzea ere ez zen erraza izan. «Today is day-off [gaur jai eguna da]», bota zuen zakar, baina azkenean onartu zuen zerbait esatea. «Munduko jate-txerik onena», adierazi zuen bazkariak galdetzean eta benetan janariarekin gozatu zuela agertu zuen. Euskal Herrian hainbat kontzertu eman ditu eta ikusle goa «oso musikala» dela zioen.

Fronton jatetxeko sukaldariak, Roberto Ruiz Aginagak azaldu zuenez, «janari oso garbia eskatu du, gatzik, azukrerik eta gantzik gabea». Dastatzeko atera zizkioten plateren artean, Tolosako babarrunak eta Ibarako piperrak ere bazirela



Lou Reed eta Ruper Ordorika, atzo, Fronton kafetegia kanpoaldean, bazkalostean. IMANOL GARCIA

Lou Reed Tolosan

Madrilen kontzertua eskaini ondoren eta Londongoaren aurretik, Tolosan izan zen atzo rock-aren izar mitikoetako



Lou Reed —argazkian bigarrena eserita ezkerretik—, taldekideekin, Ruper Ordorikarekin eta sukaldariarekin, atzo jatetxean. FRONTON JATETXEA



Lou Reed musikaria, kontzertu bat eskaintzen ari dela.

LOU REED

«Euskal Herriko entzulegoa oso musikala da; hala ikusi dut hemen eskaini ditudan kontzertuetan»

gehitu zuen sukaldariak. Bestalde, jakiak dastatzen hasi aurretik pilotalekuak liluratuta bertara sartu-irten pare bat egin zituen New York-eko musikariak.

Ruper Ordorikak, bestalde, Bilbon ezagutu zuen Lou Reed. «Aspaldiko erreferentzia da niretzat, eta belaunaldi guztiari eragin zigula esan behar da; gure sasoiari, orain urte asko, erreferente bat izan zen eta buruz genizkien bere abesti guztiak», adierazi zion HITZARI.

Talentu handiko geinua

Ibilbide luzea burutu du orain artean Lou Reede musikari munduan. Rock eta Rhythm and blues, free jazz eta musika esperimental doinuaren zaletu sutsua, 60. hamarkadan The Velvet Underground taldea osatu zuen. *Heroin*, *Rock and Roll* eta *Sweet Jane* bezalako arrakastak dira, besteak beste, aro horretatik utzitako ondarea. 1970. urtean, berriz, taldea desegin eta bakarrik ibilbideari ekin zion Lou Reede. Bi urte beranduago, *Transformer* bere lehen diskoa kaleratu zuen. 30 diskotik gora argitaratu ditu, azkena duela sei urte, 2000an, *Ecstasy* izenekoa.

Bere eragina oso nabaria izan da, lehen diskotik hasita. Abeslaria, gitarra-jolea eta konpositorea, gai sakonak jorratzen ditu bere abestietan: eromena eta itxaropena, desioa eta traizioa, hausnarketa eta adizioa... Talentu handiko geinutzat dute adituek, oraindik harritu egiten duen artista.

IRITZIA ▶ MARTXELO OTAMENDI

‘Sweet Jane’ gurean



Nork esango zien duela urte de-xente, Leidorren parean zegoen Txabola pubean, Lou Reed eta Mikel Laboa gau berean entzuteko arazorik ez zeukaten gazte haiei, egunen batean, *Sweet Jane* eta *Rock and Roll Animal* mitikoen egilearekin topo egin-go gurea Tolosako jatetxe batean...

Atzo gertatu zen eta txori txiki altzoar batek pasatu zigun abisua: Lou Reed Fronton jatetxean dago Ruper Ordorikarekin batera. Oñatiarra gutxietsi gabe (bera baita gure kantarien artean Lou Reed-tarrena), pena izan da Laboa ez egotea New Yorkeko maisuarekin batera, gazte haien ametsa bete egingo baitzen. Reed eta Laboa mahai berean. Ez da, hala ere, Ordorika Laboaren ordeko txarra, lagun handi izateaz gain.

Bartzelonan eta Madrilen emandako kontzertuen ondoren egin du geldial-

dia Lou Reede Tolosan. Kasualitatearen kasualitatearekin etortzen denez, atzo *Berria*-ko alean Reede larunbatean Bartzelonan eman zuen kontzertuaren erreportaia argitaratu genuen, Jon Eskisabelek idatzia. Eta Frontonen gure egunkariaren harpidetza daukatenez, Reedi erakutsi egin genion atzoko *Berria*. Bartzelonako kontzertuaren kronika eta argazkiarekin. «Euskarazko egunkari bakarra da», esan genion. «Munduko bakarra izango da orduan, gordetzeko modukoa», erantzun zigun Reede.

Pena izan da ez genuela gitarra bat eskura, igoal eskaini eta rockaren historian mugarrira ezarri duen kantaren bat eskainiko zigun, egun eta ordu horretan Fronton paretik pasatzeko zoria izan genuenoi. Akustiko bat antolatuko genuen Reed eta Ruperrekin, Garces jarriko genuen baxuarekin eta Longaron eta Aranzegi batera banarekin, Genesisek garai batean egiten zuen bezala. Shantineko Javiri ere utziko genioke tarte bat. Eta Tuduri produktore, bera izan baitzen bakarra garai haieran Reed eta Laboa, konplexurik gabe, elkarren ondoan jartzeko bista izan zuena.

Mestizajea aspaldi hasi zen gurean.

VILLABONA ▶ GIZARTEA



Urteurreneko ospakizunetan erreboteko lagunarteko partida jolastu zutenak. HITZA

Behar-Zana errebote taldea finaletarako txartelaren bila

Euskal Herriko Errebote Txapelketako finalerdia jokatu dute; asteburuan, elkartearen 60. urteurrena ospatu zuten

ERREDAKZIOA

Villabonako Behar-Zana elkartearen errebote taldeak aurrera egin du Euskal Herriko Errebote Txapelketan. Aurreko larunbatean Sant Piert de Iruben irabazi zuten 13-8. Sergio Sanchez, Jon Alejo, Igor Alejo, Xabier Mitxelena eta Xabier Ayerza izan ziren jokalariek. Hurrengo hitzordua finalerdia izango da. Uztaritzeko Kapito Harriren aurka jokatu dute.

Gustura daude jokalariek orain arte egin duten txapelketarekin, baina ez da partida erraza izango Uztaritzeko kontrakoa, ligaxkan haien aurka galdu egin baitzuten. Horregatik, herritik jendeak animoak ematera joatea garrantzitsua dela azaldu dute jokalariek. Ohi bezala, autobusa antolatzen ari dira egun horretarako, eta beraz, joan nahi duenak izena eman dezake elkartearen bertan.

Bestalde, Behar-Zana elkartearen 60. urteurrena ospatu zuten asteburuan. Pilota partidak, tanborrada—oso ondo jo omen zuten—, eta nola ez, bazkariak eta afariak izan ziren egindako ekitaldiak. Unerik bereziak eta hunkigarriak, ordea, igandean bertan gertatu zen. Lagunarteko errebote partidaren, atsedenaldira egin zuten eta Jose Ignacio Santamaria *Santa* ohorezko bazkide izendatu zuten.

J.I. SANTAMARIA ▶ BEHAR-ZANAKO OHOREZKO BAZKIDE

«Pozgarria da zurekin gogoratzen direnean»

Imanol Garcia ▶ Behar-Zana elkartearen 60. urteurrenean Jose Ignacio Santamaria 'Santa' (Villabona, 1937) ohorezko bazkide izendatu zuten, elkartearen gaitik egin duen lanagatik urte guzti hauetan.

Nola sartu zinen Behar-Zana elkartearen?

Urte asko daramatzat elkartearen. Gaztetan pilotan hasi nintzen. 12 urte edo izango nituen. Eskolatik atera eta frontoira joaten ginen pilotan jolastera. Gero 1950. urte inguruan sartu nintzen bazkide bezala. Eta hor jarduten dut sukaldean bazkariak-eta prestatzen.

Elkartearen sukaldaririk onena zarela esaten da.

Onena? Ni ahalegindu egiten naiz ahal dudana egiten. Ez dakitenek sukaldean eskatzen didate zerbait egiteko eta hor aritzen naiz.

Denbora asko ematen duzu Behar-Zanari?

Kalean ibili beharrean elkartearen jolastu gara eta lagunekin kontuak esaten aritzen gara zerbait askatzen dugun bitartean. Gero, larunbatetan, afariak egiten ditugu.

Elkarte-gero handia dago sukaldean.

Bai, hemengo jendea gustatzen zaio txokoetan biltzea.

Ohorezko bazkide izendatu zizuten igandean. zer sentituz zenuen?

Ilusio handia egin zidan. Pozgarria da zurekin gogoratzen direnean.



HITZA

Nola joan zinen ospakizunak? Sukaldean egon behar izan zenuen?

Larunbateko afarian aritu nintzen, baina igandean ez zidaten utzi sukaldean sartzen. Egun horretan bazkaltzea bakarrik tokatzen zitzaizkidan esan zidaten eta horrelaxe egin behar izan nuen.

Laister elkartearen egoitza lekuz aldatzen da.

Bi edo hiru urte barru gertatuko da hori. Pena pixka bat ematen dit. 40 metro baino gehiago ez gara mugituko, baina pena ematen dit. Hala ere, hoberako izango da eta jende gazte gehiago sartuko da elkartearen. ◀

GIPUZKOAN gehien irakurritako egunkarietan BIGARRENA*



HITZA euskarazko komunikazio esparrua egiteko beharrezko tresna



Euskarazko prentsak gero eta irakurle gehiago ditu

Mila esker

*CIES-en 1. neurketa 2006.

Azterketak Gipuzkoan 69.000 irakurle eman dizkigu; Herrialdeko 23 herritan egin da, horietatik 13tan dago HITZA.

IRURA ▶

Ur zerbitzuan mozketak egingo dituzte, gaur

Irurako Udalak jakinarazi duenez, gaur ur zerbitzuan mozketak egingo dituzte herri guztiko ur-sarean. Zonaldeka balbulak ixten joango dira eta neurketak egin ondoren berriro zerbitzua martxan jarriko da. Lan hauek bi edo hiru ordutan egingo dituzte ur-sarean galerik ote dagoen ikusteko, ondoren ura non galtzen den aurkitu eta konponketak egiteko. Tarteka horrelako ikuskapenak eta kontrolak egingo dituzte ur-sarea egoki kudeatzeko.

VILLABONA ▶

Txosna batzordearen bilera, bihar

Villabonako festak gertatzen ari dira pixkanaka eta horrekin batera jaien prestaketa lanak ere burutzen ari dira. Esaterako, txosna batzordeak bilera egingo du bihar. Hori dela eta, deialdia egiten die herriko eragile guztiei bilerara azaltzeko. Euskaldegian egingo dute hitzordua, 19:00etatik aurrera. Aurtengo Santio jaien inguruan egingo dute bilera eta txosnagunea nola antolatuko eztabaidatuko dute.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Munduko errealitateak ezagutuz

‘Munduan zehar bidaiatuz’ bidaien inguruko astea antolatu dute etzi bitarte

INIGO TERRADILLOS

Ibarrako Kultura eta Gazteria Sailak Kutxa Gizarte Ekintzak lagunduta, *Munduan zehar bidaiatuz* leloarekin, bidaien inguruko astea antolatu du etzi bitarte. «Egun bizi dugun globalizazio prozesuaren ondorio, kultura ezberdinen berezitasunak homogenizazio eta nolabaiteko bateratasun prozesu negatibo batean murgiltzen ari direlako», munduko errealitate desberdinetara «sentsibilitate bereziarekin» hurbiltzeko helburua du *Munduan zehar bidaiatuz* asteak. Ikus-entzunezkoak, erakusketak nahiz ipuin kontaketa Benito Izagirre kultur etxean izango dira.

EKITALDIAK

‘**Mundu bete kolore**’. Angel Cuerdo tolosarraren argazki-erakusketa dago ikusgai, hilaren 16a bitarte. 100 argazki inguru biltzen dituen erakusketa, azken urteetan India, Korea, Txina, Zanbeze, Egipto edota Orinokora egindako bidaiak ezberdinen eta izandako bizipenen isla berezia da. Hala, erakusketak bidaiak horiek laburbiltzeaz gain, bertako errealitateak ezagutzeko aukera emango du.

‘**Mongolia zaldiz**’. Angel Cuerdoren ikus-entzunezkoa gaur ikusgai, 20:00etan. Genghis Khanen lurretan bizi izan zuen esperientzia ezagutaraziko du proiektio honetan. Bidaiak honen bidez, tolosarrak ahalik eta modurik hurbilenean iker-

tu nahi zuen Mongoliako errealitatea, eta horretarako, berak bakarrik bidaiatu zuen Mongoliako arropa tradizionala jantzi. Estepan zaldiz eta Gobi basamortuan gameluz mugitu zen, eta 6.200 kilometro egin zituen trenez Mosku imperialek Ulan Bator ezezaguneraino.

‘**Zelanda Berria**’. Joxe Ramon Agirre Marron-en ikus-entzunezkoa, bihar, 20.00etan. Proiektu berri honek beste kontinente batera, beste latitude batzuetara eta, beste kultura eta errealitate soziokultural batera eramango gaitu, Zelanda Berrira. Iparraldeko uhartetik hegoaldeko uhartera eta Northlandetik Otagora eta Southlandera joango gara ikus-entzunezkoaren bidez. Ibilaldi horretan maoriengana eta zuriengana ere hurbilduko gara eta Tasmaniako itsasoko kala baketsuez, Parke Nazional ugari eta askotarikoez, sumendiez eta fauna-aniztasun handiaz gozatu ahal izango da. Paisaia egoera ezin hobean dago eta bizirik dirau itsasoaren, fiordo sakonen eta Hegoaldeko Alpeetako mendi zorrotzen artean. Ikus-entzunezko honekin, herrialde honen eta bere jendaren eta kontrasteen funtsa jaso nahi izan du egileak, lan zoragarri honekin biziki gozatzeko aukera emanaz.

‘**Munduko ipuinak**’. Lur Kortaren eskutik, bereziki haurrei zuzendutako ipuin-kontaketa saioa, etzi, 17.00etan, Kultur Etxean.

BERASTEGI ▶

‘Bihotza: biziaren motorra’ gaur Gaztainondon

Kutxako ikasgelak antolatuta eta Nazaret zentroak eta Gipuzkoako Erizaintzan Diplomatuaren Kolegio Ofizialak lagunduta, *Bihotza: biziaren motorra* hitzaldia izango da gaur entzungai. Informazio jardunaldi hau, 18:00etatik aurrera egingo dute, Berastegiko Gaztainondo jubilatuen zentroan.

IBARRA ▶

Jaietako zozketako zenbakiak salgai

Urtero bezala, salgai daude Danon Txokoan, Txumitxan, Arkaitz-Azpin, Atarin, Sendi Ekintzan, Guraso elkartean eta Zubiaurren San Bartolome jaietako zozketako zenbakiak —3 zenbaki euro baten truke—. Aurtengoan, sasarrei laguntzeko baliatuko dute sarietatik soberan gertatzen den dirua.

BELAUNTZA ▶

Gaur izango da tutorearen bisita KZgunean

Gaur izango da tutorearen bisita eguna Belauntzako KZgunean. Tutorea 16:00etatik 20:00etara izango da bertan erabiltzaileen zalantzak argitze aldera. Bestalde, 17:00etatik 19:00etara *Etxetik eros ezazu* mintegia ere eskaniko du tutoreak. Hurrengo bisita eguna hilaren 21ean izango da.



hitza

✂

Harpidedunen txokoa

✂

Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabe emango dizu

- 1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
- 2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!

PARTE HARTZEKO:
Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza • Araba etorb, 5 • TOLOSA**
Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAn **ZORTE ON!**

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

1 TENERIFERA BIDAIA
2 lagunentzat astebeteko egonaldia

LAUTREK
bidaia agentzia

korreo kalea, 52 • TOLOSA
Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21
Faxa: 943 67 39 12
zure neurriko bidaliak antolatzen ditugu

2 OTORDU EDERRA
2 lagunentzako Tolosako Zumeta jatetxean

Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa
Tel.: 943 88 28 93

bete zure datuak

Harpidedunaren kodea.....

Izena.....

Abizenak.....

Helbidea.....

Herria.....P.K.....

Telefona.....

Elektronikoa.....

GUTUN@K ▶

AHTren aurkako arrazoiak

Arazoi asko dago Abiadura Handiko Trenari ezetz esateko. Honako hauek dira, besteak beste, horren ondorioak.

Euskal Autonomi Erkidegoan, AHT proiektua «Euskal Y» bezala ezagutzen da. *Euskal Y*-a 250-280Km orduko abiaduran ibiltzeko diseinatu da. Zailtasunik gabe, AHT gure herriko azpiegitura guztien artean eraginik erasotzaileen artean litzateke: barrera efektua, zarata, paisaiari eraso ikaragarria, lurren okupazioa, sekulako tunelen indusketa, erregulazio-eza hidrologikoa, energia kontsumoaren igoera, hondakimentzako zaborategiak, ekosistemaren kaltetzea...

Lurralde antolamendu orekuta eta deszentralizatu baten ikuspegitik AHT ezin kaltegarriagoa da. Izan ere, udal eta eskualde ertainek, nekazal eremuekin batera, azpiegitura erraldoi honek ingurumenari eta bertako bizi baldintzei eragindako kalte guztiak nozitzeaz gain, AHTak hirigune handietarantz areagotuko lukeen lurralde desorekaren ondorioak pairatuko litzateke.

Iraunkortasunaren kontuarekin demagogia egin dute gure herrian inoiz planteatu den azpiegitura planik beldurgarria ezarri nahian (AHT, autopista gehiago, superportuak, plataforma logistikoak...), horrek guztiak lurraldean, gizarrean eta ingurumenaren eragiten dituen inpaktu larriak kontuan hartu gabe.

Ez ditu garraio arazoak konponduko eta errepedeetako kolapsoak jarraitu, eta, gainera, larriagotu egingo dira.

Era berean, inposatu nahi duguten eredu ekonomiko eta sozialak baliabide publikoen xahuketa, gastu sozialaren murritzeta, dependentzia eta prekaritatea areagotzea dakar berekin. Lanpostuen sorrera engainua da: aitzitik, garraio-bide handien funtzionamenduak merkatuen globalizazioa areagotu, eta, ondorioz, deslokizazioa eta prekarizazioa eragiten du. Gainera, AHTa elitista eta kontsumo gizarrean sortzen dituen premia faltuen ikurra da, sozialki kaltetuen gertatzen diren bazterketa-oren ondorio guztiek.

Proiektua erabateko desinformazioz baliatuta eta modu

inposatzailean bultzatu da, gizarre eztabaida eta parte hartzeari ateak itxita. Propaganda eta marketing manipulazionala erabili dituzte.

Horregatik, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanean biltzen garenok, larunbatean Donostian AHT gelditzea eskatzeko egingo den manifestazioan parte hartzeko dei egingo dugu. Anoetako estadiotik 17:30ean abiatuko da. Behar-beharrezkoa izango da ahalik eta jende gehien biltzea, AHTren inposaketari behar bezain ozen eta indarrez ezetz esan diezaiozun, naturarekiko errespetuan eta justizia sozialean oinarritutako den etorkizun baten alde.

MIREN ABURUZA ETA ARANTXA GABIRONDO, TOLOSALDEKO AHT GELDITU! ELKARLANAREN IZENEAN ▶ TOLOSA

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

IBARRA ▶

Udaleku irekietako epeak zabaldu dituzte

Oporretan Euskaraz udaleku irekien epeak ireki dituzte Ibarra. Aurre matrikula egitea beharrezkoa izango da, eta ostirala arte eman daiteke izena. Uzturpe Ikastolan, goizez edo arratsalde. Oporrak uztailearen 3tik 28ra bitarte izango dira, 4 eta 12 urte bitartekoentzat. Argibide gehiago 943 67 12 99 telefonoan eska daitezke.

ORENDAIN ▶

Gipuzkoako Segatxapelketako finalerdia

Gipuzkoako Txapelketako finalerdia Orendainen jokatu dute, igandean, 18:00etan. Bertan hiru segalari egongo dira, Andoni Zuriarrain amarrak, Joxe Gabirondo eta Andoni Goikoetxea gazteluarra. Bertan, kilo gehien mozteko lortzen duten lehenengo biak finalera pasako dira, Oiztuzunen, hilaren 25ean egingo den finalera, alegia.

IKAZTEGIETA ▶

Festetako hirugarren bilera gaur izango da

Gaur, Ikaztegieta liburategian festak antolatzen hirugarren bilera egingo dute, 21:00etatik aurrera. Bertan, proposamenak eta ideiak emango dituzte, bilerara joaten diren guztien artean, herriko festa ahalik eta hoberean antolatu ahal izateko. Gustura onartuko dituzte joandakoak. Hurrengo bileren berri, ahoz aho emango da.

IBARRA ▶

Misiolari baten hitzaldia eta bideo-emanaldia

Ibarrako parrokiko lokaletan gaur, 20:00etan, Juan Ramon Etxebarria misiolari gasteiztarak hitzaldia eskainiko du. Horrez gain, bideo emanaldi interesgarria izango da, Baba deritzon Ekuadorreko lurraldean misiolarietako esperientzia ezagutu. Izaskun Azurmendi misiolari ibartarra ere han dago, eta bere esperientziak entzuteko aukera izango da.

GIZARTEA ▶

Abian da jada UEMAREN SMS II. Lehiaketa

‘Esaiozu ezetz’ gaia era originalenean jorratu beharko dute parte-hartzaileak

NEREA URBIZU

UEMAk antolatu duen eta Urtxintxak, Gaztetxulok, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak lagundu duten Euskal Herriko II. SMS Lehiaketan hasi dira lehenengo mezuak jasotzen; animatzen direnek, gainera, hilabete osoa izango dute mezu gehiago bidaltzeko.

Lehiaketaren euskarri nagusia www.smsariketa.org webgunea izango da aurtien ere. Baina, iaz, *gehienez maite duzun horri* gaia izan bazuten, aurtien ezezkoak esateko duten abiltzia erakutsi beharko dute parte-hartzaileak, hori baita hain zuzen ere proposatu duten gaia, *esaioszu ezetz* izenburupean. Mezu originalak webgunean bertan idatzi daitezke, edota, 5649 zenbakira SMS bat bidaliz *‘uema.sms2.mezua’* jarri.

Sari handiak

Irabazle asko egongo dira, izan ere, sari asko banatuko dituzte: eskuko ordenagailuak, internet tableta, kamera digitala,

Realeko kamisetak, Gaztetxuloko harpidetzak, Urtxintxaren mahai jolasak, kamisetak eta MP3ak. Hori guztiak, SMSak asmatzen direnak izateagatik. Aipatu sari irabazleak uztailean zehar emango dituzte jakitera epaileek. Parte-hartzaileak gazteak zein helduak izan daitezke, Euskal Herri osoan.

Lehiaketaren helburua

UEMAren helburuetako bat ere gazteen arloari heltzea da. Hauen hizkuntza ohiturak, hizkuntzaren kalitatea, gazteen komunikazioaren erabiltzen duten erregistroa... Horregatik, Zazpiak Batman kolektiboarekin elkarlanean antolatu zuten Euskal Herriko I. SMS Lehiaketa. Emaitzak «oso onak» izan ziren, mezu kopuru polita jaso baitzuten eta bigarrena egiteari eutsi diote.

Euskararekin jolastea eta ondo pasatzea da beste helburu garrantzitsuenetako bat. Euskara jolasteko baliagarria dela ikusteko beste modu bat proposatzen dute horrela UEMAkoek.

PILOTA ▶

HITZA Txapelketako hurrengo partidak

Kadeteak Bidanian eta seniorrak eta etorkizunekoak Beotibarren ariko dira



HITZA Pilota Txapelketako kadeteak, partida batean. N. URBIZU

N. URBIZU

HITZA Pilota Txapelketaren baitan, kadeteen partidak gaur jokatuko dituzte Bidanian, 19:00etatik aurrera. Eskuz banakakoak hauek izango dira: Urrutia Alduntzinen aurka; Goienetxe, Alduntzinen kontra; eta Galarza eta Olaetxea pilotariak Agiriano, Iraolaren aurka.

Beotibarren 19:30ean Telleria-Senperena eta Beobide-Loiola bikoteak ariko dira gaur, etorkizunekoan mailan. Seniorrak izango dira jarraian, 20:30etik aurrera. Lasa-Apraiz, Onsaldo-Erasoren aurka; Gonzalez-Bengoetxea, Olaetxea-Jauregiren kontra.

Bihar, 19:30ean, Beotibarren, Telleria-Senperena eta

EMAITZAK ▶

Kadeteak.

Esnaola-Urrutia	13-18
Alduntzín-Urteaga	18-2
Zabaleta-Goienetxe	10-18
Arzelus-Ravina	0-18

Jubenilak.

Larrañaga-Aranburu / Lazkoz-Mariñelarena	22-21
Yoldi-Linzoain / Goikoetxea-Larrinaga	22-14
Goñi-Otxandorena / Ojuel-Galarzaga	9-22

Seniorrak.

Elurbe-Garmendia / Baez II-Gutierrez	8-22
--------------------------------------	------

Beobide-Loiola bikoteak ariko dira, etorkizunekoan mailan. Gogoan izan ere, infantilen, alebilen eta benjaminen finalerdia ostiralean eta larunbatean jokatuko dituztela, baita dagokion pilotalekuan.

GIZARTEA ▶

Imersoko oporraldien aurtengo deialdia egina

ERREDAKZIOA

Gizarte Zerbitzuak Leitzako eta Aresoko adinduentzat 2006-2007 denboraldirako Imersoko oporraldien deialdia egin du, 8 edo 15 eguneko iraupenekoak. Bertan izena emateko epea, hilaren 15ean bukatzen da. Hori zerbitzuaren egoitzan bertan egin behar da, aurrez hitzordua eskatuta.

«Gutxienez, 65 urte izatea, edo jubilazio pentsioduna izatea edo prejubilatuta egonez gero 60 urte beteak izatea» dira horretan parte hartzeko eskatzaileak bete behardako baldintza bakarrak, jakinarazi dutenez. Eskatzailearen laguntzaileak ez du horrelako betebeharririk. Halaber, «%45eko ezintasuna duten seme-alabek ere» joateko aukera izango dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irurra.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzarain autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KIROLA

Aurrera, aurrera

Ligako hoberenen arteko kanporaketa gaindituta, igoyerako bi partiduak falta zaizkio; igandean etxeko azken partidua

JAIONE ASTIBIA

Aurrera futbol taldeak, igoyerako aurreneko ateka gainditu du eta orain azkena eta erabakiorrena du zain. Leitzako taldea igoyerako azken joan-etorriko bi partiduak jokatzeko prest dago; Mendi taldea izanen du arerio.

Larunbatean, partidu zaila eta azken arte jakinmina eragin zuena jokatu zuen Aurrera. Beriain taldea zuen arerio; joanerakoan banako berdinketa egin zuten eta alde batera edo bestera, baina erabaki beharra zegoen, aurrera jarraitzeko txartelaren jabeagoa.

Eta halaxe ibili zen txartela: batzutan Beriainen eskutan, bestetan, eta azkenik erabaterako ere hala gelditu zen, Aurreraren eskutan. Izan ere, partidua hasi eta 5 minuturako

aurkako penaltia jaso zuten leitzarrek, 0-1ekoa ezarri; handik 10 minutura, ordea, berdinetaren gola egin zuen Antolinek falta jaurtiketa baten ondorioz; hala, banakoarekin, hasi bezala zeuden.

Kiriok dantzan

Baina, atsedenera minutu gutxi batzuk falta zilerla, 1-2koa sartu zuten berriaindarrek. «Denak kezkatuta eta erdi etsituta joan ginen aldageletara. Galdua ere ikusi genuen; aurrera egitez gero, 2 gol sartu beharrik genituen!», azaldu diote HITZARI taldeko ordezkariak: «Baina, hitzegin, lasaitu eta dena ematera ateratu ginen zelaira». Eta halaxe egin zuten. Bitartean, Beriaingo jokalaririk bat kanporatu ere egin zuen epaileak «denbora gaitzeagatik». Parti-

dua bukatzeko 20 minutu falta zirela aillatu zen binako berdinetaren gola, Arangoak buruz sartutakoa.

Handik aurrera, bertan bildu ziren ikusleak ere, asko sutu ziren etxeko jokalarientzat animo oihutan. Aukerak sortuz, beharrezko golaren bila behin eta berriz saiatu ziren, partidu bukaerako zitzurako 10 minuturen faltan aillatu zelarik. Aurreraren garaipenaren eta sailkapenaren gola. Hau ere Antolinek sartutakoa, area barrenean hartutako baloi batekin. 3-2ko emaitza, azkenik, beraz; emaitza horri eustea lortu zuten leitzarrek, talde bisitaria bestela saiatu bazen ere.

Orain, igandean du hitzordua garrantzitsua; etxean jokatu duen azkeneko partidua izanen da gainera. Sarrera ere doan izanen da.

LEITZA ▶

Urrutia, Agirre lagunarekin Berria mailako finalean da

Hilaren 18an jokatu dute harri-jasotzaile gazteek finala, Araba Euskaraz jaialdian

J. ASTIBIA

Nabaridasen jokatu dute finalaurreko saioa irabazi egin zuten Urrutiak eta Agirrek, lehengo larunbatean. Eta hala, Berria Mailako Urrezko Harri-jasotzailea Txapelketako finala jokatzeko sailkatu ziren.

Bertan, Lertxundi eta Astorki izan zituzten arerio. Hiru harririk aritu ziren lanean eta hiruretan garaile atera zen leitzarrek eta Abadiñoak osatutako bikotea. Bakarkako lanetan, 100 kiloko zilandroarekin aritu zen Urrutia leitzarrek, eta 24 altxaldi eman zizkion, Astorkik baino bi gehiago; kubikoarekin, berriz, Agirrek 17 eman zizkion eta 16 Lertxundik. Une horretan, 300 kiloko alde zuten beren alde, 3 jasaldi; txanda libreko saioan, alde hori jan beharra zuten Lertxundik eta Astorkik. Urrutiak eta Agirrek lanak ziurtatzera jo zuten, ordea, eta 29 eginez, beste bi gehiagoko alde ezarri zuten, finalako txartela eskuratuz.

Urrutiak eta Agirrek, Telleria II.a eta Eizmendi izanen dituzte arerio. Hil honen 18an, Armentian, jokatu dute azken saioa, Araba Euskaraz jaialdiaren baitan. Aizkorako Txapelaldian Liga ere orduntxe hasiko da.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Ikararia eragin zuen atzoko suteak

J. Astibia ▶ Atzo eguerdian, 14:30 aldera, herriko etxe batean, non berritze lanak egiten ari diren bertan, sute txiki bat sortu zen, eta ikararia eragin zuen herritarrengan. Herriko borondatezko suhiltzaileek itzali zuten. Dirudienez, obran bertako hondakinak sutu ziren, sekulako kea eraginez. J. A.



iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
1. pisua - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Alkiza. Eraikitzen ari diren bi familientzako etxea, erdisotoa eta hiru solairu.

Alkiza. Familia bakarreko txaleta, 4.000 m2 dituen lursailarekin. 120 m2 dituzten 3 solairu.

Andoain. Santa Kruz auzoan, 80 m2 dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera.

Igogailuarekin. Ikuspegi ederrak.

Andoain. Santa Kruz auzoan, 80 m2 dituen etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko. Dena kanpoaldera. Igogailuarekin. Ikuspegi ederrak.

Belauntza. Bi familientzako etxea. Bi solairu, 270 m2-ko lursaila.

Berastegi. Familia bakarreko

txaleta salgai. 3.500 m2-ko lursailarekin.

Donostia. Antiguoa auzoan, Eskolta Real. Berritutako etxebizitza, kanpoaldera.

Tolosa. Zumalakarregi. 150 m2-ko etxebizitza. Egoera ezin hobean. Garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Eraikuntza berrian azken etxebizitza salgai. 65 m2 erabilgarri.

Tolosa. Trinkete plaza. 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea terrazarekin, bainugela eta komuna; garaje itxia.

Tolosa. Santa Marian etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna. Egoera bikaina.

Tolosa. Belaten, trasteleku berriak

salgai argiarekin eta aire-erazgailuarekin. 9.480 eurotik.

Tolosa. Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala salgai. Guztia erakusleho.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 45 m2-ko lokal ederra salgai. Erakusleho handia.

Tolosa. Zabalzarreta. 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea terrazarekin, bainugela eta komuna; garaje itxia eta trasteleku.

Tolosa. Usabal. 350 m2-ko pabilioia alokeran, abuztutik aurrera. Bulegoa, bainugela, bi garabi-zubiz prestatutakoa, e. a.

Errioxa. Etxe atxikiak eta etxebizitzak ditugu, Logroño eta Najeratik gertu.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Albiztur. Kultur Astearen baitan, Joseba Ramirez ipuin kontalariak emanaldia eskainiko du gaur liburutegian, 16:30etik aurrera, 3 eta 6 urte bitartekoentzat. Jarraian, 6 eta 12 urte bitartekoentzat izango da.

Ibarrak. Gorritira irteera antolatuta du Haitzetan Raju mendi taldeak hilaren 11n. *Sua* filmarako grabaketa ere egingo dute arratsaldean. Izen-ematea, Ibarrako Atarri eta Zubiaurren, Tolosako Denak-en eta 652 71 58 00 telefono zenbakian.

Ibarrak. Juan Ramon Etxebarria apaiz gasteiztarrek hitzaldia eta bideo emanaldia eskainiko du parrokiko lokaletan, 20:00etan. Baba deritzon Ekuadorko lurraldean misiolarien esperientzia ezagutaraziz.

Ikaztegieta. 21:00etatik aurrera, liburutegian festetako hirugarren bilera egingo dute.

Tolosa. Gaur, Adinekoen Astearen baitan, 10:00etan unitate psikogeriatrico erresidenteentzat meza, 11:00etan Ertzaintzako musika bandaren emanaldia kaperan, 16:30ean lurreamendiko koroaren emanaldia kafetegian eta 17:30ean Tolosako Musika Eskolako ikasleen emanaldia kafetegian.

Tolosa. Gaur, 19:30ean, Tolosa Kup-eko bigarren bilera burutuko dute Antonio Maria Labaien kultur etxean. Parte hartzeko interesa dutenek izena eman behar dute 943 67 03 83 telefono zenbakian, edo gazteria@tolosakoudala.net helbide elektronikoan.



Pilotatik txirringularitzara... egun batez

TOLOSA ▶ Ikusmin handia piztu zuen atzo goizean, Tolosako Beotibar pilotalekuan, Asegarceko pilotarien presentziak. Eguraldi onak babestuta, eta gaztetxo ugariaren begiradapean, pilotariak pilotakadak albo batera utzi eta txango berezia egin zuten. Hala, bizikleta hartu eta pilotalekutik abiatuta, Zarautzerainoko ibilbidea burutu zuten bi gorpil gainean. Guztira 35 kilometro inguru egin zituzten errepide zaharretik barrena. Behin

amaizuta, ibilbide guztian zehar atzetik izan zuten kamioian zituzten arropak jantzi eta dotore-dotore Argiñano jatetxean egin zuten bazkari legea. Gisa honetara eman zioten amaiera aurtengo denboraldiari. Besteen artean, eskualdean aski ezagunak diren Bellosa eta Oteiza izan ziren; haiekin batera, Mikel Unanua eta Begino. Asier Olaizola duda izan zen amaierarako baina azkenean ez zen gurean izan. NEREA URBIZU

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Odei (Tolosa).
Zorionak eta bost muxu handi ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Aitor Gurrutxaga (Tolosa).
Zorionak zure zazpigarren urtebetetzearen familiarren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza
LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak,
urrezko etzeiak,
ezkontzak, jaioberriak...

Zizurkil. Aste Berdearen baitan, *Lurra eta biok etxean eta hirian* haurrentzako joku interaktiboa, 18:00etan, Atxulondo kultur etxean.

HITZALDIAK

Gaztelu. Uli Mankomunitateak antolatuta, *Teleguntza* hitzaldia, 17:00etatik aurrera. Gazteluko Herriko Elkartearen, 17:00etan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itsaso Zabaleta tolosarraren margolanak daude Jubilatuen tabernan, hilaren 21a arte. Egutero irekita, astelehenetan ezik.

Tolosa. *Aterpeak.* Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketak izango da Aranburu jauregian, uztailaren 1a arte.

Zizurkil. Atxulondo kultur etxean klima aldatetari buruzko erakusketak izango da, hilaren 11 bitarte.

Zizurkil. Ostirala arte, Pedro Mari Otaño eskolan *Tokiko Agenda 21ean murgilduz* erakusketak izango da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, albisteak, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-19:00. *Irauli uhinak.*
21:00-22:00. *Bide okerretik.*
22:00-23:00. *Street noise.*

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA
2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

HELBIDERATU ZURE KUOTA

EROSAGOIA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian